

ARETXABALETAKO BEDARRETAKO SAN MIGELKO HILERRIAREN ETA BASERRI AUZOETAKO HILERRIEN BARNE ERREGIMEN ARAUDIA

I KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK.

I sekzioa: Bedarretako San Migelgo Hilerriaren barne gobernu eta ordenarena.

II Sekzioa: Ehorzketena.

III Sekzioa: Langilegoarena.

II. KAPITULUA: ESKUBIDE FUNERARIOENA.

I Sekzioa: Eskubide funerarioena, orohar.

II Sekzioa: Eskubide funerarioen partikularki . Saillapena.

II A: Azaleza lagapeneko hilobiak.

II B: Lur-emate komunak eta lur-emate komunerako hilobiak.

III. KAPITULUA: ESKUBIDE FUNERARIOEN TRANSMISIOARENA.

IV. KAPITULUA: ESKUBIDE FUNERARIOEN GALTZE EDO EPE BETETZEARENA.

V. KAPITULUA: LUR-EMATE, DESEHORZKETA ETA LEKUALDATZEAK.

VI. KAPITULUA: XEDAPEN APAINGARRIAK.

AZKEN XEDAPENAK.

I KAPITULUA : XEDAPEN OROKORRAK.

1. Artikulua:

Bedarretako San Migel izenburua daraman Hilerria, eta Baserri Auzoetako Hilerriak, Udalaren agintepean dauden zerbitzu publikoko ondasunak dira, azken honi dagokiolarik hauen administrazio, zuzentza eta zaintza, beste agintari eta erakunde batzuren berezko ahalmena den hartan izan ezik.

2. Artikulua:

Hilerrien administrazio, zaintza eta zuzentzaren egikaritzan Udalari honako funtzio hauek dagozkie:

1. Hilerrien zaintza, garbiketa eta egokitzea.
2. Zerbitzuak antolatzea.
3. Lursail eta hilobien gain, eskubide funerarioen emakida.
4. Lursailen okupazio eta lan baimenetatik eratorritako eskubide eta tasen kobrantza.
5. Dagoeneko emanak dauden, edo etorkizunean emango diren osasun neurrien betetzea.
6. Zerbitzua beteko duen langilegoaren izendapena eta kasua emango balitz hauen kentzea.

I Sekzioa: Bedarretako San Migelgo Hilerriaren barne gobernu eta ordenarena.

3. Artikulua:

Hilerria, ondoren aipatuko diren orduetan egongo da jendearentzako irekia:

- * Urtarrilaren 1etik Apirilaren 30a arte eta Urriaren 1etik Abenduaren 31 arte:
- * Goizez: 9etatik 12ak arte.
- * Arratsaldez: 15etatik 18ak arte.
- * Maiatzaren 1etik Irailaren 30a arte, biak barne:
- * Goizez: 9etatik 12ak arte.
- * Arratsaldez: 15etatik 20ak arte.

4. Artikulua:

Hilerri barruan portaera zibiko bat galdatu da.

5. Artikulua:

1.- Horretarako espreski emandako udal bairnen berezia izan ezik, hilerrian, ordenu egokia eta barnebilkuntza artegatu dezakeen gurdi, zaldieri, edo edozein moztetako abere sartzea debekatuta dago. Era berean, ezingo da hilerri barnera garraio ibilgailurik sartu, udal zerbitzuetako ibilgailu, hileta furgoi, eta hilerri barnean erabili beharreko eraikuntza materialeak daramatzaten ibilgailuak izan ezik, hauen gidariek, horretarako egoki diren baimen eta lizentziak ginean eraman beharko dituztelarik.

2.- Dena den, aipaturiko garraiobideen jabeak, hilerri barneko instalakuntza nahiz bideetan egindako kalteen erantzule izango dira, hauek konpontzera edo bere kasuan kalteek

eragindako gastuak ordaintzera behartuak egonik. Jabea ez balego, erantzukizun ñau, kaltea eragindako ibilgailuaren gidariari eskatu ahal izango zaio.

6. Artikulua:

Ezarritako oharpenen arabera, hilerria, hiru moetatako hilobietan banatuko da:

- 1) Hilobiak
 - 1 a) Azalera lagapeneko hilobiak
 - 1 b) Ehorzketa komuneko hilobiak.
- 2) Panteoiak
- 3) Ehorzketa komunak.

II Sekzioa: Ehorzketena.

7. Artikulua:

Gorpuen edo gorpu-hondarren desehorzketari ekiteko garaian hildakoaren oinordeko edo senitartekoek honen gorpu-hondarrak beste hilobi betetara eramanak izan daitezen eskatzen ez badute, hauek hartu eta hezurtegi orokorrera eramanak izan daitezen xedatu ahal du Udalak. Desehorzketa garaian, hilobian aurki ahal litezkeen gauzei dagokienez, Kode Zibileko 615 artikuluan ezarritako tramiteak jarraituko dira.

III Bekzioa: Langilegoarena.

8. Artikulua:

Langilegoa Udalak jarriko du, Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legean eta Erregimen Lokaleko 7/85 Legean, 781/86 Testu Bateratua, langilegoa esleitzeko oharmandakoaren arabera.

9. Artikulua:

Udaleko langilegoaren edo, Udalak kontrataturiko zerbitzu enpresen funtzioak honako hauek dira:

- a) 3. Artikuluan oharmandako ordutegiaren arabera, Hilerriko ateak ireki eta istea; hilerriaren eta barne dependentzien garbiketa zaintzea, eta barnekaldearen apainketaz eta gunea osatzen duten landare, zuhaitz, berdegune, bide eta gainontzeko elementuen kontserbazioaz arduratzea.
- b) Hilerri bertan kokaturiko autopsia gela, garbitasun baldintza onetan mantentzea.
- c) Ehorzketarako ematen zaizkien gorpu eta gorpu-hondarrak hartu eta eramatea, horrela dagokionean hauek hiltegi gordez. Edozein kasutan, Udaleko dagokion sekzioak behar bezala betetako ehorzketa paperaren aurkezpena eskatu beharko du, eta zerbitzua bete ondoren bere oneritziarekin utzuli udal sekzio horretara, hau, edozein ehorzketari ekiteko ezinbesteko betebeharra izango delarik.
- d) Ehorzketak edo bere kasuan desehorzketak egin eta hilobiak isteko beharrezko diren ekintza materiale guztiak gauzatzea.
- e) Etorkizunean ezarriko den, hilobiaren hustutze eta garbiketarik ateratako erropa, hileta tresna eta gainontzeko tresnak deuseztatzea destinaturiko labearen funtzionamendua zaintzea.
- f) Alkatetzak besterik xedatzen ez duen bitartean, hilerriko giltza gordetzea.
- g) Barnekaldean ordenua mantendu dadin zaintzea, honen aurkako ekintzak, eta tokiak merezi duen errespetuaren aurkako ihardueren gauzatzea nahiz pertsonen presentzia ekidinez.
- h) Alkateak, berak duen eskuduntzatik emandako agindu bereziak betetzea.

II. KAPITULUA: ESKUBIDE FUNERARIOENA.

I Sekzioa: Eskubide funerarioena, orohar.

10. Artikulua:

Eskubide funerarioak, kapitulu honek ikuitzen dituen emakidak hartzen ditu.

Eskubide funerarioak Udalak eman eta onartuko ditu, Araudi honetako aginduekin bat etorritz.

11. Artikulua:

Eskubide funerarioa eskatzailearen izenean erregistratuko da.

12. Artikulua:

Eskubide funerarioak, hilerriko hilobien erabilera soilik atxikitzen du, zeintzuren jabari titularitatea bakar bakarrik Udalarari dagokion.

13. Artikulua:

Hilobi, panteoi eta hilerrian leudekeen edozein moztetako eraikuntzak, komertzioetik kanpoko ondasun direia kontsideratzen da. Ondorioz ezingo dira, ez saldu ez erosi, ez eta ere aldatu. Araudi honetan oharmandako eskualdatzeak bakarrik izango dira baliozkoak.

14. Artikulua:

Eskubide funerarioaren gozatzeak, dagokion zerga edo ordainerazpenaren ordainketa darama berarekin, gai honi buruzko udal ordenantza fiskalaren xedapenekin bat etorritz.

Eskubide funerarioen jabe diren titularrek Hilerriaren zaintzan lagundu beharko dute, Udalak ezarriak dituen edo etorkizunean ezarri ahal dituen eskubideak ordainduz.

Emakidak dagokion tituluaren bitartez kreditatuko dira.

15. Artikulua:

Hilobi batetako titularrak, bere senitartekoak edo harreman berezi baten bidez, berarekin nolabaiteko lotura duten pertsonak, bertan hilobiratuak izan daitezten eskubidea dauka, nahiz eta edozein kasutan ere, titulu funerarioaren aurkezpena eskatuko zaion.

II Sekzioa: Eskubide funerarioena partikularki. Saillapena.

II.A: Azalera lagapeneko hilobiak.

16. Artikulua:

Eraikitako hilobiak, eta etorkizunean eraikiko direnak, Hildakoen Sanitate Poliziaren Araudian eskatutako osasun arau eta neurrietara lotuko dira.

17. Artikulua:

Horrela eraikitako hilobien gaineko eskubide funerarioa, gorpuak edo gorpu-hondarrak uzteko denboraldikoa izango da, eta Ordenantza Fiskalak kasu bakoitzean

markatzen dituen eskubideak ordaindu ondoren hartuko da.

Emakida, gorpuaren desehorzketari ekiterakoan, eta hildakoaren senitarteko edo oinordekoek horrela eskatu ezkeru, Udalak eman eta aitortuko du.

18. Artikulua:

Hilobiengain emandako eskubide funerarioa, 99 urtetakoa izango da.

19. Artikulua:

Hilobiaren emakida epea amaitzean, titularrak, edo oinordetzaz subrogatzen diren pertsonak, aukera izango dute, gorpu-hondarren hilobi baten emakida eskatzeko edo dauden gorpu-hondarrak hezurtegi orokorrera eramana izan daitezzen eskatzeko.

20. Artikulua:

Udalak erabakiko du gorpu-hondarrentzako zenbat hilobi egin eta hauek non kokatu behar diren.

Gorpu-hondarrentzako hilobiengan dagoen eskubide funerarioa, denboraldiko emakida bat izango da eta, honen iraupena" gehienez ere 10 urtetakoa izango da. Eskubide hau, Ordenantza Fiskalaren arabera dagozkion eskubideak ordaindu ondoren hartuko da.

II.B: LUR-EMATE KOMUNAK ETA LUR-EMATE KOMUNERAKO HILOBIAK.

21. Artikulua:

Lur-emateak, hilerri bertan egokitutako zulo eta hilobietan egingo dira, horretarako erreserbatutako lekuetan, hauek, bertako Oin Orokorreko planean markatzen direlarik.

22. Artikulua:

Lur-emate komun eta Lur-emate komunetarako hilobiengan dagoen eskubide funerarioen emakida epea, 10 urtetakoa izando da, indarrean dagoen Hildakoen Sanitate Poliziaren Araudia kontutan izanik, gorpu-hondar bezala, gorpuari lurra eman zitzaionetik 5 urte pasa ondoren daudenak kontsideratzen direlarik, hauek, beharrak horrela eskatuko balu, desehortzi daitezkeelarik.

III KAPITULUA: ESKUBIDE FUNERARIOEN TRASMISIOARENA.

23. Artikulua:

Eskubide funerario baten titular orok hiltzen den ondorenerako onuradunak izendatzeko eskubidea du.

Espreki onuradunik izendaturik ez balego, eta ezkontiderik ez balego, eskubide funerarioaren titularitatea titularraren testamenduzko oinordekoei transmititurik geratzen zaiela ulertzen da. Hauek ezean, legedi zibilean oharmandako testamendugabeko oinordetzaren ordenean transmitituko da.

24. Artikulua:

Ezkontidea hilda balego eta onuradunik espreki izendatua egongo ez balitz, eta ondorioz, interesatuaren oinordeko, hainbat pertsona gertatuko balira, eskubide funerarioaren titularitatea, gainontzekoek gehiengoz izendatzen duten oinordekidearen alde aitortua izango da, titularitatea zuena hil zen hurrengo egunetik edo, oinordekoen aitorenaren egintza eman den hurrengo egunetik kontatzen hasitako hiru hilabetetako epean. Gehiengoa posible izango ez balitz, eskubide hau, adinez nagusien den oinordekidearen alde aitortua izango da.

25 Artikulua:

Eskubide funerario baten ondorengo transmisioek, ez dute haseran emana izan zen epearen iraupena aldaeraziko.

26 Artikulua:

Eskubide funerario baten titularrak hau utzi egin dezake, beti ere dagokion hilobian lurremandako gorpu-hondarrik ez dagoen bitartean. Dena den uzte honek, ez dio inori, egindako ordainketa itzultzeko eskubiderik ematen. Hau horrela izan dadin, Udalari eskaria egingo zaio, ondoren, interesatua edo honen ordezkoko legala pertsonalki azalduz, berretsia izan beharko delarik.

IV KAPITULUA: **ESKUBIDE FUNERARIOEN GALTZE EDO EPE BETETZEARENA.**

27 Artikulua:

Eskubide funerario baten iraungipena aitortu ahal izango da, ondoren dagokion hilobia Udalera itzuliz, ondorengo kasu hauetan:

- a) Eraikinaren egoera erorkorragatik. Egoera erorkor honen eta ondorengo iraungipenaren aitopenak, Alkatetzak eskaturiko administraziozko expedientea esijituko du.
- b) Hilobia uzteagatik. Behin titularra hil eta haren onuradun, oinordeko edo eskubidearen jabe direnak euren aldeko eskualdatzea hiru urteren buruan egiten ez badute, hilobia utzita dagoela kontsideratuko da.

Oinordeko edo oinordekotzaz ordezkoko diren pertsonak, transmisioa eskatuko balute eta hilobia egoera txarrean aurkituko balitz, hiru hilabetetan zehar egokitu egin beharko da, epe horretan, beharrezko lirakekeen konponketak egingo ez balira, eskubide funerarioaren iraungipena dekretatuko da, hau Udalera itzuliko delarik.

- c) Horretarako ezarritako epeen barruan, eskubide edo tasak ez ordaintzeagatik.
- d) Eskubidearen iraungipen epea amaitzeagatik.
- e) Titularrak espreski eskubide honi uko egiteagatik.

V KAPITULUA: LUR-EMATE, DESEHORZKETA, ETA LEKUALDATZEAK.

28 Artikulua:

Hildakoen gorpuen edo gorpu-hondarren lur-emate, desehorzketa eta lekualdatzeak, indarrean dagoen Hildakoen Sanitate Poliziaren Araudiaren arau berezien bidez arautuko dira.

29 Artikulua:

Ezingo da gorpurik ehortzi usteltze seinalerik ez duen bitartean eta inoiz ere ez hil ondorengo 24 orduak baino lehen. Usteltze azkar bategatik, kutsadura arriskua badago, edo beste osasun arazo batzuegatik, hileta aipatutako epea baino lehen egiten bada, hilotza Hilerriko deposituan utzi beharko da.

30 Artikulua:

Azken lur-emate egin zenetik bi urte pasa arte, edo hiltzea, gaixotasun

kutsakor bategatik gerta izan bazen, 5 urte pasa arte panteoien nahiz lur-emate komun eta hilobien arasarik ezingo da ireki. Honetatik kanpo geratzen dira, hilotz ilonduak, edo lekualdatzeko ilontzen diren hilotzak dituzten hilobiak.

31 Artikulua:

Aurreko artikuluan aipaturiko arrazoiengatik ezin bada lurrik eman, beste hilobi batetan egin anal izango da lur-emate hori, beti ere behin behingotasunez, eta denbora batetarako, denbora hau 5 urte baino gehiago ezin izango delarik. Epearen luzapena justifika dezakeen arrazoirik ez balego, epealdi hau igarotzean hilotza edo honen gorpu-hondarrak lehenengo hilobira ofizioz lekualdatuko dira, zeinaren tituluan, eta lekualdatzea egin arte, operazio ororen esekitzea kontsignaturik geratuko den.

32 Artikulua:

Lur-ematea, beste gorpu edo gorpu-hondarrak dauden hilobietan egiten denean, ekitaldi berberan ñauen erredukzioa egingo da. Titularrak espreski eskatzen duenean bakarrik egin ahal izango da erredukzio hori lur-ematea baino lehen.

33 Artikulua:

Desehorzketak eta lur emandako gorpuen lekualdatzeak, Udalaren aldeko eritzia, eta edozein kasutan, Lurraldeko Osasun Buruzagitzak aurretik emandako baimena izatea, esijitzen du.

34 Artikulua:

Dagokion Udaleko sekzioan, Hilobien Erregistroa eramango da, liburu zigilatu eta foliatuan, bertan konstarazi beharko delarik:

- a) Hilobiaren identifikazioa.
- b) Emakida egin zeneko data.
- c) Titularraren izen, abizen eta helbidea.
- d) Honen ordezkizendaturiko onuraduna.
- e) Egindako transmisioak.
- f) Lur-emate, desehorzketa eta lekualdatzeak, hilotzaren data, izena, abizenak eta sexuaren adierazpenarekin.
- g) Ordaindutako eskubideak.

35 Artikulua:

Hilobien Erregistro Liburuaz gain, honen lagungarri izango den fitxero bat eramango da.

VI. KAPITULUA: XEDAPEN APAINGARRIAK.

* Udal Ordenantza Eraikitzaileak.

Materiale apaingarrien hornikuntza eta ezarketa kompetentzia partikularrenak izango dira. Aipaturiko materialeak honako hauek izan daitezke:

a) Lurrean egindako lur-emate arruntetan, horizontaletik nabarmentzen diren elementuak.

Altueran gehienez ere 1,50 metro eta zabaleroan metro bat izango duten gurutze edo motibo funerarioak izan daitezke.

b) Elementu horizontalak.

Hilobiak, dituzten zati egonkorretan, gehienez ere 12 zmtako lodiera duten harrizko arlosekin apaindu ahal izango dira, hauen gainean, luzeran 100 zm, zabaleroan

70 zm eta lodieran 3 zm eduki dezaketen marmolezko plakak jar daitezkeelarik. Behar izanez gero, plaka hauen luzera 200 zmtakoa ere izan daiteke.

Plakak, aldamenetako ertzak kontutan izanik zentratu jarriko dira, elementu bertikalak jarriak doazen zatitik distantzia berbera utziz.

Plakak, xixelaturiko inskribapenak eramango dituzte, horien helburu eta arrazoi bakarra, hauxe delarik.

Plakak, latoiezko torlojuen bidez lotuko dira harrira, inskribapenak egin behar direnean altxatu ahal izateko.

AZKEN XEDAPENAK.

Lehenengoa:

Araudi honek espreski ohartematen ez dituen gaietan, indarrean dagoen Hildakoen Sanitate Poliziaren Araudian ohartemandakoaren, eta indarrean dauden gainontzeko arauen arabera jokatu da, eta hauek ezean, Udalak erabakitzen duenaren arabera.

Bigarrena:

Udalak, xedapen hauen edukin eta ezarketari buruz, nahi adina informazio emango du.

Hirugarren:

Baimenik gabe ezarritako elementu oro kendu egingo da, baldin eta Araudi honetan ezarritakoa betetzen ez ba du.

Laugarren:

Araudi hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik jarriko da indarrean.

BEDARRETAKO SAN MIGELKO (ARETXABALETA) UDAL HILERRIKO HILOBIEN GAIN ESKUBIDE FUNERARIOA EMATEKO ERIZPIDEAK.

1. HELBURUA:

Aretxabaletako Bedarretako San Migelko Hilerraren Barne-Erregimeneko Araudian ezarritakoarekin bat etorriz, honen bidez, ondoren adierazten diren, Udal Hilerriko hilobien gain eskubide funerarioen emakidari ekiteko jarraitu beharreko erizpideak ezartzen dira.

2. IZAERA JURIDIKOA.

Zerbitzu publikoko ondasun baten erabilera pribatibozko emakida batetaz ari gara, Bedarretako San Migelko Udal Hilerriaz, zeina arestian aipaturiko hilobien gaineko eskubide funerarioaren titularitatean gauzatzen den.

3. HAUTAKETA PROZEDURA.

Eskubide funerarioaren esleipenlarien hautaketa, zozketa publiko baten bidez egingo da.

4. LEHIATZEKO AHALMENA.

Zozketan, bere egunean eskaera egin zuten, eta datuak udal bulegoetan jasota dituzten pertsona fisikoek parte hartuko dute.

Famili unitate bakoitzean pertsona bakar bati emango zaio eskubide funerarioa, hau bi hilobiez osatutako sail baten gain soilik eman ahal izango delarik.

5. ZOZKETA.

Zozketa.....ean.....etan, Udaletxeko Pleno Aretoan egingo da, Alkate Jaunaren edo berau ordezkatzan duen Udalbatzako kidearen eta Idazkariaren aurrean, zeinak ekitaldiaren fede emango duen.

Prozedura: Emakida gai diren hilobi moeta ezberdin bakoitzaren gaineko eskubide funerarioa esleitzeko, zozketa ezberdinak egingo dira.

Zozketa bakoitzari ekiteko, prozedura bietan ere berdina izango da, bi kutxa egongo dira. (1. KUTXA, eta 2. KUTXA). 1. KUTXAn aurkezpen ordena jarraituz, eskaera bakoitzari emandako zenbakia duten txartelak sartuko dira. 2. KUTXAn emakida gai diren hilobi bakoitzari emango zaion zenbakia duten txartelak sartuko dira.

1. KUTXAn ateratzen den zenbakia duen eskatzailea izango da esleipenlaria, eta honi, jarraian 2. KUTXatik ateratzen den zenbakia duen hilobiaren gain emango zaio eskubide funerarioa.

Era berean, bietako zozketa bakoitzean, eta 1. KUTXatik esleitzeko dauden hilobiak bezainbat txartel atera ondoren, 1. KUTXatik gainontzeko txartelak aterako dira, hauek, eta lehentasunezko ordenean, eskatzaileen erreserba zerrenda osatzeko, eta esleipenlaria gertatu den zozketan, interesaturen bati emakida gauzatuko ez litzaiokeen kasurako, izango direlarik.

1. KUTXatik, emakida gai diren hilobien kopuru berean txartelak atera ondoren, eta geratzen diren gainontzekoekin erreserba zerrenda egin ondoren, zozketa bukatutzat emango da. Bi zozketak egin ondoren ekitaldia bukatutzat emango da.

6. BEHIN BETIKO ESLEIPENA.

Behin betiko esleipena, egindako zozketan hautatuak gertatutako pertsonari egingo

zaie, Alkatetzaren Ebazpenaren bidez. Ebazpen honek ez du balioko, eskubide funerarioaren titularitatea frogatzeko titulu gisa.

Esleipena egin eta jakinerazia izan ondoren, esleipenlariak, ebazpena jasotzen duen hurrengo egunetik kontaktzen hasitako hilabete batetako epean, emakida gai den hilobiari eskubide funerario kontzeptuan izendatutako diru kopurua, ordaindu beharko du. Diru kopuru hau, 200.000 pezetetakoa da.

Aurreko lerroaldean adierazten den ordainketa, emandako epean egiten ez bada, eta jokabide hau justifika dezakeen arrazoirik alegatzen ez bada, zozketaren arabera, lehentasunezko ordenean erreserba zerrendan dagoen eskatzaileari emango zaio eskubide - funerarioa, Alkatetzako Ebazpenaren bidez.

Ordainketa ez egitea justifikatzen duen arrazoirik alegatzen bada, hau kontutan izanik, luzapen bat emateko edo erreserba zerrendan dagoenari eskubide hori emateko egoki erizten duen erabakia har dezan, Alkate Udalburua ahalmentzen da.

Udal Administrazioak kreditazio titulua ematen ez duen bitartean ezingo da eskubide funerarioaren titularitatea hartu.

Emandako eskubide funerarioari dagokion diru kopurua ordaindu ondoren kreditatuko da emakida, eta Udal Administrazioak luzatuko duen kreditazio tituluan honako hau konstaraziko da:

- a) Hilobia identifikatuko duten datuak.
- b) Esleipen udal erabakiaren data.
- c) Titularraren izen-abizenak (senar-emazteak badira bienak) eta N.A.N.a
- d) Eskubide funerarioaren kontzeptuan ordaindutako diru kopurua.
- e) Titularrak espreski izendatu nahi duen onuraduna.

7. EMAKIDADUNAREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.

Emakidak 99 urtetako iraupena izango du, eta honetatik titularrarentzako erator daitezkeen titulu funerario, transmisio, iraungipen eta eta gainontzeko eskubide eta betebeharrak, momentuan indarrean egongo den, Bedarretako San Migelko Hilerrriaren Barne Erregimen Araudian aurrikusitakoak izango dira.

8. LORTU GABEKO ESKUBIDEAK.

Zozketa honetan parte hartu eta emakida baten esleipenlari ez izateak, ez du, etorkizunean ospa daitezkeen zozketetarako inolako eskubideez jabetzea suposatzen.